

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Osteguna, 2010eko abenduaren 9a. VIII. urtea. 2.137. zenbakia. www.tolosaldeahitza.info



I. TERRADILLOS

→ **Eskualdekoak batez ere.** Aurtengoan eskualdekoak izan dira jaun eta jabe Tolosako Txuleta Festako mahaien bueltan. Beste toki batzuetatik ere gerturatu dira gurera, noski, eta honek bost urte eta gero hitzordua «egonkorta» egin dela esan nahi du antolatzaileen hitzetan. «Arrakasta» hitza ere erabili dute festaren balorazio goiztiarra egiteko. Euskal labeldun txekor-erre pintxoak ere banatu zituzten atzokoan. 02

Martxorako izango dute ikaztegiatarrek udaletxe berria

Eraikinaren oinarria egiteari urrian ekin zioten eta pasa den asteen hasi ziren ekartzen enpresan bertan egiten aritu diren eraikina 04

Itxialdia eta manifestazioa Aaiuneko «sarraskia» salatzeko

Tolosaldeia Sahararekin elkarrekin antolatu ditu ekitaldiak; itxialdia bihar izango da 20:00etan Tolosako udaletxean eta manifestazioa etxi 04

«Giro onean» amaitu dute XIX. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa

Mutiletan binaka Xabier Romero eta Edu Lobato, banaka Mikel Goitia eta nesketan binaka Txus eta Elena izan dira garaileak 05

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

matilda

gabon hauetan, buntitu ezazu opari onenekin
zuri matildarekin. Astea Berria

Idi txuletare «arrakasta»

Txuletare Festak iraun duen bost egunetan beterik egon da Zerkausia, gehien bat eskualdeko herritarrekin

Bai Udala, bai eta bertaratu direnak ere, «oso gustura» geratu dira ekimenarekin

E. Maiz - I. Terradillos Tolosa

«Arrakastatsua». Horrela definitu dute aurtengo Txuletare Festa antolatzaileek. Eta emaitzak ikusita ezin besterik aipatu, izan ere, irekita egon den egun guztietan jendez beterik egon da. Aurtengoak itxi ditu ateak, baina ez dago zalantzarik datorren urtean ere hutsik egin gabe bertan izango dela, bost urte eta gero, «erabat egonkortu» baita ekimen hau.

Atzo eskaini zuten azken bazkaria, eta aurretik, beste bi bazkari eta bi afari eman dituzte iragan larunbatetik. Bost egunetan beterik egon da Zerkausiko jatetxea, egun bakoitzean 170 lagun inguru bildu direlarik. Idi txuleta osagai nagusia zuen menua dastatzeko aukera izan dute Tolosa Gourmet-en ekimen honetan parte hartu dutenek.

Gehienak eskualdekoak

Bazkaltzar eta afaltzar hauetatik gehienak eskualdekoak izan dira. Ondoren Gipuzkoatik etorritakoak leudeke, eta ondoren, espainiar Estatutik etorriak. Astelehenean nabaritu zen, batez ere, azken hauen presentzia, Espainiako leku askotatik etorritako 79 lagun eseri baitziren Zerkausiko mahaian txuleta probatzera.

Turismo bulegotik, gainera, baikorki baloratu dute Txuletare Festa, «bertara bazkaltzera edota afaltzera etortzeaz gain, atzeritar gehienek Tolosa nahiz eskualdea ezagutzeko baliatu baitute».

Bestalde, Tolosako Udaletik ere «oso gustura» azaldu dira, «beste behin ekimenak aurrerikuzpen guztiak bete dituelako». Nerea Letamendia Azoketako zinegotziak azaldu duenez, «bertan bazkaldu edo afaldu duen jendea oso gustura geratu da, eta askok errepikatu dute edo errepikatze gogoz geratu dira». «Hori oso garrantzitsua da guretzat, eta bide honetatik lanean jarraitu behar dugula adierazten du», gehitu du.

Txekor erre pintxoek ere harrera ona

Atzoko bazkaria hasi aurretik, mokadutxo hartzeko aukera izan zen Trianguloan, Euskal Labeldun txekor erre prestatu baitzuten, eta bertatik 1.200 pintxo zerbitzatu. Ilada luzeak egin zituen jendeak hori dastatu ahal izateko. Eguerdi aldera hasi ziren pintxoak banatzen eta ordubate ingurura guztia amaitu zuten, beste behin ere, jakiek gurean duten arrakasta agerian utziz.



Goian, atzo bazkaltzen Zerkausian. Behean, urdalaizpikoa ebakitzen. I.T.



Txekor errearen pintxoetara jende andana hurbildu zen. I.T.



Atzeritarrak ere ikus zitezkeen gure gastronomia probatzen. I.T.

Romero, Lobato, Goitia, Txus eta Elena, Frontenis Txapelketako garaileak

Herenegun bukatu zen Berrobiko Begi Gorri elkarteak antolatzen duen Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa

Erredakzioa Berrobi

Bukatu da azaroaren 20ean hasitako Berrobiko XIX. Frontenis Txapelketa. Begi Gorri elkarteak antolatzen du urtero txapelketa eta finalak herenegun jokatu zituzten.

Mutiletan bi maila izan dira, bikoteka eta banaka, baina nesketan bikoteka bakarrik aritu dira. Mutiletan 44 bikotek eta banaka 29 pertsonen eman zuten izena, eta nesketan, lauk.

Mutiletan binakako mailan Xabier Romerok eta Edu Lobatok irabazi zieten 30-22 eta Nikolas

Artola eta Iker Lizardiri. Banaka, berriz, Mikel Goitiak irabazi zion 30-28 Unai Mendiari.

Neskei dagokionez Txus eta Elena izan ziren garaile Mireia eta Arantzazuri 30-25 irabazi ondoren.

Antolatzaileek «giro ona» izan dela argitu dute, «urteroko moduan», baina batez ere finaleko

hiru partidak nabarmendu dituzte. Izan ere, jende asko bildu zen eta partaideek «jokaldi onak» eskaini zituzten.

Partidak bukatuta parte-hartzaileen artean kirola egiteko materiala zozketatu zuten eta ondoren, afaltzera joan ziren denak batera.

● tolosaldea@hitza.info



Aurtengo txapelketako irabazleak. HITZA



Finalean aritutako guztiak ikusi daitezke irudi honetan. HITZA

Ezker abertzalea «gustura» galdetegiaren erantzunarekin

Amezketarren artean banatu zuten eta ekarpen asko jaso dituzte; etzi egingo dute hauek aztertzeke bilera

Erredakzioa Amezketza

Amezketako ezker abertzaleak herri galdeketa egin berri du eta bertan bildutakoa eztabaidatzeko etzi, larunbata, 11:00etatik aurrera balio anitzeko gelan, biltzeko gonbita luzatzen diete herritarrei.

Honekin batera, «galdetegia erantzuteko lana hartu duten

guztiei eskerrak eman nahi dizkiogu, oso gustura gaude jasotako erantzunarekin. Eskerrak asko beraz, galdetegia bete, eta herrian jarritako buzoietara botatzeko lana hartu zenuten guztioi», azaldu du ezker abertzaleak.

«Ekarpen asko jaso ditugu»

Era berean, herritarrek egindako «ekarpen guztiak» ere nabarmendu nahi izan ditu, izan ere «jendeak ere garrantzia eman diola dirudi, ekarpen asko jaso baititugu. Horrek, orain, aurrera begirako lanean ere asko lagunduko digula iruditzen zaigu, beraz, eskerrak asko ekarpen aberats guzti horientatik», dio.

Jasotako «erantzun orri eta ekarpen kopurua» ikusita Amezketako ezker abertzaleak «herritarrek euren iritzia azalertzeko beharra dutela» ikusi du. Horregatik, «deialdi bat zabaldu nahi dugu; galdetegi hauetatik ateratako portzentajeak, ondorio nagusiak eta ekarpenak aurrean hartu, eta elkarrekin aztertzea eta hausnartzea».

«Galdetegiarekin izandako jarrrera irekia ikusita, beharrezko ikusi dugu halako lan tailer bat proposatzea, guztiontzat aberasgarriagoa izango delakoan», gaineratu dute. Beraz, herritarrek etziko bilkurara azaltzeko gonbita egiten du ezker abertzaleak.

Sahararen aldeko itxialdia eta manifestazioa

Tolosaldea Sahararekin elkarteak egin du deia «Aaiuneko kanpalekuko sarraskiarengatik»

Erredakzioa Tolosa

Tolosaldea Sahararekin elkarteak biharko Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna baliatu nahi du «Marokoko indar zapaltzaileek okupaturiko Mendebaldeko Saharako Aaiuneko Agdaim Izkeko

kanpalekuan egindako sarraskia (hildakoak, zaurituak, desagertuak...) gaitzesteko».

Ekitaldiak

Horiek horrela, bihar bertan, itxialdia egingo dute Tolosako udaletxean 20:00etan. Hurrengo egunean, berriz, larunbatean, manifestazioa egingo dute. Mobilizazioa 12:00etan irtengo da Plaza Zaharretik. Ekitaldi hauekin «Maroko Saharatik ateratzeko» eta Mendebaldeko Sahararen «autodeterminazioa eta independentzia» aldarrikatuko dituzte.

Partida erabakrria dute gaur Zeberio II. eta Ionek

Finalaurrekoetako lehen partida 40-38 irabazi zioten Urtasun eta San Migueli; partida 16:00etan hasiko da

Erredakzioa Elduain

Zeberio II. elduaindarrak eta Ionek partida erabakigarria dute gaur, Hernaniko Galarretan 16:00etatik aurrera. Izan ere, Ur-

tasun eta San Miguel izango dituzte aurkari, eta bikote nafarrak irabazi egin behar du Erremonte-k Bikoteen Azysa Txapelketan jarraitu nahi badu.

Gaurkoa bueltako partida izango da, finalaurrekoen lehen partida Zeberio II eta Ionek 40-38 irabazi zuten eta.

Elduaindarrak eta Ionek irabazi ez gero, finala izango da, baina garaipena nafarrek lortzen badute beste partida bat izango da finalaren aurretik.



Zeberio II. eta Ionek txapelketako partidetakoa batean. MAIALEN ANDRES



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bost egunetan eraikita


Egurrezko eraikina enpresan eginda ekarri dute. Martxorako guztia bukatuta egotea aurreiskusi dute

Erredakzioa Ikaztegieta

Ikaztegieta Udalak herriko beharrei erantzuteko eraikin balioanizduna egitea erabaki zuen. Udaletxe berria izateaz gain, balioanitzeko gela handi bat eta Li-burutegia bertan izango ditu.

Udalak horrela erabakita, eraikinak ohiko egitura izan beharrean egurrezkoa izango du. Oinarria egiten urrian hasi baziren ere, pasa den astean ekarri zuten, enpresan egiten aritu diren eraikina. Kamioi handietan ekarri dituzte egurrezko ormak. Beheko solairutik hasi eta teilatua bitarte, bost egun behar izan dituzte. Eraikinari, kanpotik eta baita barrutik ere, aurrerantzean izango duen itxura eman diote.

Zatirik garrantzitsuena egin badute ere, oraindik geratzen da. Guztia egurrez egina dagoen arren, behin bukatutakoan ez da egurrik ikusiko. Hala ere, martxoa hasierarako guztia bukatuta egongo da.



Azaroaren 29an hasi eta ia eguneko pisu bat eman diote. Bost egunetan eraikinaren zati handiena eraiki dute. HITZA

Tolosa



GIRO APARTA URTEURREN FESTAN

Beotibar pilotalekuak 75. urte bete dituela eta jai egun hauetan ospakizun ezberdinak izan dira pilotalekuan. Atzo, pilotari profesionalen partideaz gain, ekitaldi «hunkigarria» izan zen. Partiden ostean, urte hauetan guztietan Beotibar pilotalekuan garrantzia izan duten pertsonak omendu zituzten. Pilotalekua jendez bete zen eta giro polita izan zen nagusi. INIGO TERRADILLOS



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du

LAGUN ARO GBC
Gran Canaria 2014
saskibalo partida

Abenduak 12 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

Gabon ukituz dator abenduko kultur egitaraua

Olentzero eta Mari Domingi Ori ibaitik iritsiko dira abenduaren 24an, ondoren Zerkausira joango dira

Asier Imaz Kultura

Urteko azken hilabetea Tolosa-ko eragile askok Gabonekin bat egingo dute. Euren ekitaldiak egun hauek girotzeko balioko dute eta horien artean kontzertu

desberdinak nagusituko dira. Olentzerok eta Mari Domingik ere urteroko zita izango dute hilaren 24an. Ori ibaitik jaitsiko dira lehenik, 17:30ean, eta ondoren, haurrekin Zerkausian elkartuko dira.

Horrez gain, erakusketek, hitzaldiek eta zine emanaldiek bete-ko dute hilabete honetako kultur egitaraua. Bonbereneak ere ez du hutsik egingo abenduan, kontzertuez gain, hilaren 12an, ipuin kontalariak izango dira bertan txikien gozamenarako.



Olentzero Ori ibaitik etorriko da Tolosara, Mari Domingiren laguntzarekin. HITZA

↓ Abenduan zer?

ERAKUSKETAK

- **Tolosa-La Bayoneta y Napoleón.** Aranburu jauregian, abenduaren 17tik aurrera, Eusko Ikaskuntzaren bidez antolatutako erakusketa.
- **Wayang Golek (Indonesiako txotxongiloak).** Topic-en urtariraren 10a bitarte.
- **Emakumea, etorkina, bizilaguna.** Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara, SOS Arrazake-riak elkartearen erakusketa. Abenduaren 10etik 17ra.

IKUSKIZUNAK ETA MUSIKA

- **'Oinazez', Alurr dantza taldearen ikuskizuna.** Abenduaren 10ean Leidorren, 22:00etan.
- **'El Nica' (Costa Rica) antzerki saioa.** Abenduaren 11n Leidorren, 19:30ean. 8-14 urte bitarteko gaztetxoentzat.
- **Kirol Gala.** Abenduaren 15ean Leidorren, 19:00etan.
- **'Beldur Barik' emanaldia.** Abenduaren 17an, gazteek antolatutako arte eta ikuskizun saioa. Leidorren 19:00etan.
- **Tolosako Orfeoaren Mes-siah.** Abenduaren 22an, Eguberrietako kontzertua. Leidorren 20:30ean.
- **Isidro Larrañaga Musika Eskolaren Eguberrietako kontzertua.** Abenduaren 23an, Leidorren 19:30ean.
- **'Segi jotzen', Poxpolo eta konpainia.** Abenduaren 26an,

Leidorren bi saio. 12:00etan eta 17:00etan.

- **'El Mago de Hoz', Buho y Maravillas Cop.** Abenduak 30ean Topic-en, 18:00etan.

ZINEA

- **'El diario de Greg'.** Abenduaren 12an, Leidorren 17:00etan.
- **'Los ojos de Julia'.** Abenduaren 12an, 19:30ean eta 22:00etan. Abenduaren 13an, 20:30ean, Leidorren.
- **'La marcha'.** Abenduaren 13an, 19:00etan Kultur Etxean.
- **'Agua Viva'.** Abenduaren 17an, Kultur Etxean 19:00etan,

BESTERIK

- **Odolemaileen hileroko odol ateratzak.** Abenduaren 20an, 18:30etik aurrera Kultur Etxean.
- **Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikia.** Abenduaren 26tik urtariraren 5era, Kultur Etxean.
- **Teknoiraultza.** Ezagutu teknologia konbergenteen inguru-ko aurrerapenak. Erakusketa ibiltaria. Trianguloan. La Caixa-ren Fundazioak antolatua, abenduaren 14ra bitarte.
- **'Jeiki Jeiki' herritarren Inauterietako argazkien bilketa.** Abenduaren 10a bitarte, Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. (Kamera baten zozketa parte-hartzaileen artean).
- **Mundu bat Tolosaldean.** Abenduaren 10etik 19ra, Kultura arteko Topaketak. (Abenduak 10 Giza Eskubideen Eguna eta

abenduak 18 Etorkinen Nazio-arteko Eguna). Antolatzailea: Tolosaldea Garatzen

- **Andeetako musika eta instrumentuen tailerra.** Abenduaren 10ean, Errota Haur liburutegian.

■ **Xurdirin Gabonetako kontzertua eta Disko Top.** Abenduaren 11n, Tolosa&Co -Tolosako dendariek antolatutako dinamizazio kanpaina-Zerkausian, 18:00etan.

■ **Batxixango.** Abenduaren 11n, Disko jaia. Batxiler II. Mailako ikasleek Tolosako Gazteria eta Berdintasun sailekin elkarlanean antolatua. Beotibarren. 23:00etatik 05:00etara. Aurretik afaria Zerkausian, 21:00etan.

■ **Munduko ipuinen kontaketa ingelesez.** Abenduaren 16an, Errota Haur Liburutegian. 18:00etan, 6-10 urte bitarteko haurrentzat.

■ **Gabonetako azoka berezia eta 'Munduko gozoak'.** Ereite elkartearen eskutik, abenduaren 18an.

■ **Mundualitoaren finalak.** Uzturpe kiroldegian, abenduaren 19an.

■ **Tolosako Musika Bandaren Eguberri kontzertua.** Abenduaren 24ean, 12:00etan Zerkausian. Eguberri kalejira, 20:00etan.

■ **Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Ori ibaian behe-rra.** Abenduaren 24ean, 17:30etik aurrera. Haurrei harre-ra Zerkausian.

■ **Hodeiertz abesbatzaren Eguberrietako kontzertua.** Abenduaren 26an.

■ **Gazte Astea.** Abenduaren 26tik 30era, Gazte Topagunean. Kultur eta kirol jarduerak eta irteerak. Abenduaren 28an, Euskal Selektzioaren futbol partida.

■ **Gabonetako haur parkea.** Abenduaren 27tik 30era, Zerkausian. Doan, 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

■ **Tolosako Musika Bandaren Urte Zahar kalejira.** Abenduaren 31n, 20:00etan.

■ **Tolosa Kantari.** Abenduko az-

ken larunbatean, 25ean, Agirre doktorearen plazatik abiatuta, 12:00etan.

BONBERENEA

Gustuko bidean, Adaparik ezlelopean antolatutako ekimenak.

■ **25th Coming Fire eta 30%.** Abenduaren 11n, 22:30ean.

■ **Michel Cloup (Frantzia).** Abenduaren 12an, 20:00etan.

■ **Andurina eta Txexo-Eo! Hemen nago!** Abenduaren 12an, ipuin kontaketa.

■ **Indekitxen, Glaukoma Sound System eta Dolce Tanagera.** Abenduaren 29an, 22:30ean.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ekonomika.** Lakuntza markako ekonomika, klasika modeloa. Egoera onean eta oso gutxi erabilia. Interesatuek deitu 649 510 941 telefonora.

ALOKAGAI

■ **Atikoa.** Tolosako Alde Zaharrean gela bateko atikoa alokatzen dut. Igogailua eta tximinia ditu. Interesatuek deitu 618 130 081 telefono zenbakira.

www.euskalherriko **plaza**.com

% 10eko deskontua

NEREA 1962

LENTZERIT

Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera

NEREA Errementari Kalea, z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

→ Laburrak**Mandoeigira irteera antolatu du Mendibilek**

LEITZA ▶ Mendibil Taldeak irteera antolatu du larunbat honetarako. Ez dira oso urrutira joango oraingo honetan, Ixkibar eta Mandoegira, hain zuzen ere. Eguna amaitzeko Oialde elkarrean bazkaria egingo dute. Izena emateko epea gaur amaitzen da. Horretarako interesatuek Maimur eta Astiz liburu dendetara jo beharko dute.

Astelehenean KZguneko tutorearen bisita

BERASTEGI ▶ Hilabete honetan hiru egunetan zehar jasoko dute tutorearen bisita Berastegiko KZgunean. Lehendabizikoa astelehenean izango da 09:00etatik 13:00etara. Hurrengo hitzorduak hilaren 20an eta 27an izango dira.

'Hondakinek badute irtenbiderik' hitzaldia, gaur

IBARRA ▶ Gipuzkoa Zero Zabor plataformak *Hondakinek badute irtenbidea* hitzaldia eskainiko dute gaur 19:00etatik aurrera Ibarra Kultur Etxean. Bertan atez ateko bilketaren inguruan ere hitz egingo dute.



2011

agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepede mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Leidor aretoa erabat betetzea lortuko du bihar Alurr dantza taldeak

'Oinazez' ikuskizuna estreinatuko dute antzokian 22:00etan; duela egun batzuetatik sarrerak agortuta daude

Erredakzioa Ibarra

Alurr-ek bi urte eta gero, Leidor antzokia leporaino betetzea lortuko du bihar. Tolosan aurkeztuko dute beraien azken lana Ibarrrako dantza taldekoek. 22:00etan estreinatuko da *Oinazez*, ikuskitun berritzaile eta desberdina.

Aiert Beobide da ikuskizunaren zuzendaria eta koreografoa. Berarekin batera Katixa Agirre aritu da koreografiak prestatzen. Iñar Sastre, Leire Zumeta, Eguzki Errondosoro, Iraitz Zabaleta, Carmina Dovaes, Leire Telletxea eta Jagoba Astiazaranek egin dituzte emanaldirako musikak, eta azken hau aritu da zuzentzen. Azkenik, Ramon Garciak eta dantza taldeko kideek egin dituzte jantzien diseinuak.

Taula gainera emandakoa

Aurrera egin nahi duen pertsonaia baten istorioa islatzen du *Oinazez*-ek. Egin nahia eta ezina. Bizitzan ekiten duten bidearen go-goeta bat, zuzeneko musikak lagunduta, sorkuntza bereziekin, eta euskal dantza tradizional eta berrien bitartez adierazia.

Aiert Beobide zuzendariak deskribatzen du emanaldiaren oinarria: «Alurr sortu zenetik hona, bere ibilbidean, dantza aldetik, aurrerapausoak ematen aritu da. Euskal dantzak gaindituz, aurrerago joan, eta garaikidetasuna bi-



Duela bi urte azaroan estreinatu zuten *Sua* emanaldia, eta oraingoa da Alurren hurrengo ikuskizun handia. HITZA

latuz joan da beti, eta bide berriak urratuz. Hala, emanaldi honekin hau agertu nahi izan dugu, aurrerapauso hori ematerako garaian izan daitezkeen beldurrak eta borrorak. Helburu jakin bat ez dagoenean, frogak egiten joan behar da, eta *Oinazez*-ek hori islatzen du, kateak mozteak eta sustraiak atzean uzteak sortzen duen beldurra eta mina».

Garaikideagoa

Euskal dantza erabiliaz, zerbait adierazteko eta esateko lengoia sortu dute. Orain arte, dantza tradizionala, erritual baten baitan, zerbait ospatzeko egin dena izan da. Baina, orain, euskal dantza, zerbait adierazteko tresna bezala

erabili nahi izan dute. Horrek erregistroak eta tenpoak aldatzea behartu ditu. Hala, aurreko ikuskizunak baino zerbait garaikideagoa egitea lortu dute.

Musika zuzenean

Musikariak, hasieratik proiektuaren parte izan dira, eta sorkuntza lan guztian hori egon dira. Ikuskizunerako abesti batzuk sortu dituzte eta bihar taula gainera, zuzenean ariko dira jotzen.

Musikariak ikusleentzat itzal bat izango dira, eta ez dira presente egongo ikuskizunean. Honela jendeak arreta dantzan jarriko du. Astiazaranek zionez, «musika oso garaikidea eta gogorra izatean, atentzioa ematen zuen, baina

itzal bihurtzearekin, aldea txikitzea eta oreka mantentzea lortu dugu».

'Sua'-rekin zerikusirik ez

Duela bi urte, 2008ko azaroan estreinatu zuten *Sua* ikuskizuna. Hau izen bereko film laburrean oinarritua zegoen. Lapurdin 1609. urtean izandako gertaera batzuk zituen ardatz, eta horko nondik norakoak dantzen eta jantzien bitartez azaltzen zituen Alurr taldeak.

Oinazez-en kasuan ez dago apiko istoriorik edo jarraitu beharreko hari edo kontakizunik. Hori dela eta, egileen esanetan, ikusle bakoitzak bere ondorioak aterako ditu eta sentsazioak bizitu.

Irudia ▶ **Berastegi**

BERTSOAK ETA GAZTAINAK

Urteroko ohiturari jarraituz, gaztaina jatea egin zuten igandean Berastegiko Urepel biltokian. Bertako kultur taldeak antolatuta 85 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan. Bazkalostea alaitzeko, Julen Zelaieta, Mantxi eta Oier Aizpurua aritu ziren bertotan. Gero, gauean, autobusa hartu eta asko Oriara joan ziren parrandara. Urtea bukatzerako beste hitzordu bat ere badute Berastegiko gazteek. Izan ere, abenduaren 30ean Biltokiaren zazpigarren urteurrena ospatuko dute. E.EZEIZA

Komiki tailerrean izena emateko aukera zabalik

Hilaren 16an bukatuko da izena emateko epea. Ikastaroa urte hasieran izango da eta tokia ez dute zehaztu oraindik

Erredakzioa

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, komiki tailerrean parte hartzeko aukera izango da Eguberri hauetan. Zehazki 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendua dago.

Komiki tailerrean, «zer da komikia? zer kontatu? edo nola kontatu?» bezalako galderak erantzungo dituzte. Istorioak nola lortu, komiki motak, iturriak, errekurtsoak, bokadilo motak, onomatopeiak, espresio bideak... nola egin eta erabili ikasteko aukera ere izango dute.

Era berean, komikiak osatuz, sormena landuko dute. Irudiei testuak jarri eta testuei irudiak jarri ibiliko dira.

Marraketan pertsonaiak nola sortu, espresioak, mugimendua, margotze teknikak, txuribeltza, tintak, arkatzak... landuko dituzte eta baita teknika desberdinak ere (akuarela, tenperak, akrilikoak...). Azken finean komikia lantzen ikasiko dute eta norberaren lanak egingo dituzte, bi orrialde edo gehiago eginez.

Hiru egunetako tailerra izango da eta lekua oraindik zehazteke dago. Urtarrilaren 3, 4 eta 5ean 17:00etatik 19:00etara izango da tailerra. Kostua berriz, 45 euro izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aiztondoko bulegoetan eskuragarri izango da edota 943 69 39 30 telefonora deituz (Itsaso). Izena emateko epea berri, hilaren 16an bukatuko da.



Komikiak egiteko oinarritzeko pausuak ikasiko dituzte. R. CALVO

→ Laburrak

Dantza-soka Eguna inguruko bilera deialdia

ANOETA ▶ Dantza-Soka Eguna inguruan hausnartzeko, eta datorren urteko Dantza-Soka Eguna prestatzeko, bilera egin nahi dute hilaren 14ean, asteartean. 18:00etan izango da udaletxean eta herriko taldeei eta herritar orori bertan parte hartzea deitzen diete.

Gabonetako kanten entsegua larunbatean

BALIARRAIN ▶ Udalak Gabonetako abestien entsegua deitu du hilaren 11rako. 18:00etan izango da kultur gelan. Aurten berrikuntzak izango dira eta entseguaren ostean, ibilbidea eta ordua zehaztuko dira. Ahalik eta jende gehien izatea komeni da. Beste entsegu egunen bat behar bada, orduan hitz egingo da.

Patinaje ikastaroa antolatzeko izen ematea

IKAZTEGIETA ▶ Aurreko aldiari egin zen bezala, berriro ere patinaje ikastaroa antolatu nahi da. Horretarako lehenik eta behin, haur eta heldu, interesa duten guztiek izena eman beharko dute udaletxean. Azken eguna hilaren 14a asteazkena izango da. Taldea osatuz gero, ondoren egingo den bileran zehaztuko dira eguna, ordua eta prezioa.

KZguneako tutoretza orduak hilak 16 eta 30

ZIZURKIL ▶ KZguneako tutoretza orduak hilaren 16 eta 30ean izango dira 09:00etatik 13:00ak bitarte.



Korrontzi eta Oinkari emanaldiko une batean. HITZA

‘Infernuko hauspoa’ ikuskizuneko dvd-a eskuragarri

Villabonako leku ezberdinetan salgai jarri dute Oinkari eta Korrontziren elkarlaneko emaitza

Larrea, Amasa eta Kixubi okindrietan, Tinta inprimategian, Benito harategian eta Arnasa, Itzaltze, Iru Aldeta, Obaba eta Egarriz edaritegietan. 15 euroren truke ale bat eskuratzeko aukera dago.

Kamiseta eta jertseak

Bestalde, kamisetak eta jertseak ere atera dituzte eta hauek ere salgai daude. Kasu honetan, Villabonako Ikastolako Ganbararen aurkitzen dira. Probatu eta erosi nahi izanez gero, astearte eta ostiralean dago aukera 19:30etik 21:00etara.

Kamisetak, haur, gazte nahiz helduentzat dira eta 15 euro balio dute. Jertseak ere haur, gazte nahiz helduentzako modukoak dira eta 22 euro ordaindu behar da. Biak, hau da, kamiseta eta jertsea erosiz gero, 35 euro kostatuko litzateke.

Erredakzioa Villabona

Villabonako Oinkari dantza taldeak, Korrontzirekin batera prestatutako *Infernuko hauspoa* dvd-a kaleratu du. Izan ere, azken hila-bete hauetan Oinkari dantza taldea Korrontzi folk taldearekin elkarlanean aritu da *Infernuko hauspoa* ikuskizun berria prestatzen.

Ikuskizun hau zuzenean ikusteko hainbat aukera izango diren arren, dvd formatuan ere eskuragarri dago. Dvd hau salgai ondorengo lekuetan aurkituko duzue:



Hilberriak

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarritako
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN
BALIOA**
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider gareniz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagarria izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea, Trianguloan, 19:30ean. Barakaldon izandako emakumearen erailketa salatuko dute.
- **Tolosa.** Herriaren Inauterietako argazkien bilketa, Kultur Etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara edota jeikijelki@gmail.com helbidera bidalita. Argazkiekin erakusketa bat egingo dute urtarrilean. Gehinez 5 argazki utzi daitezke, eta parte-hartzaile guztien artean argazki kamera bat zozketatuko dute.

HITZALDIA

- **Alegia.** Jim Shim Jyutsuri (Arminian bizitzearen artea) buruz hitzaldia, Vega Garciarekin, Kultur Etxean, 19:00etan.
- **Ibarra.** Hondakinek badute irtenbidea hitzaldia, Gipuzkoa Zero Zabor-en eskutik, Kultur Etxean, 19:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanbladak antolatuta, *Sagararen denbora* dokumentala, Otsabi elkartean, 19:30ean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



GUREAN ERE, XABIER LETE GOGOAN

Txistulari Bandak emanaldia eskaini zuen atzo eguerdian udaletxeko arkupeetan. Urteroko emanaldia izan zen, izan ere, Sortzez Garbia Ama Birjinaren egunez izan ohi den meza nagusia eta gero txistularien doinuak izaten dira entzungai. Txistulariek prestaturik zu-

ten egitarauari abesti bat gehitu zioten, Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean*, hain zuzen ere. Modu honetan izan zuten gogoan pasa den larunbatean hil zen olerkari eta abeslaria. Jende ugari elkartu zen, eta askok abestu ere egin zuten, txistuaren doinuekin.it.

Agurrak



Urte askoan!
Markel Martinez Sagastibelza (Leitza).
Gaur 2 urte. Urte askoz osaba-izeba, aiton-amona eta lehengusuen partetik. Muxu handi bat, politte!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO** **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	